Andoaingo Udala
EUSKARA ZERBITZUA

Baldintza Teknikoen Plegua

Andoaingo Mintzalaguna 2022 : euskara giro ez formal eta ludikoan praktikatzeko gunearen antolatze eta burutze lanak

Ezaugarri Teknikoak

1.- HELBURUA

Kontratu honen helburua da, euskaraz zerbait jakin baina beren gaitasun-mailagatik edo erabilera-gune eskasiagatik erabiltzeko zailtasunak dituzten herritarrei euskaraz aritzeko aukera eskaintzea. *Andoaingo Mintzalaguna 2022* du egitasmoak izena. Mintzalaguneko euskararen erabileraren ezaugarriei dagokienez, kontuan hartu behar da erabilera hori ez formala eta ludikoa dela. Udalak euskararen erabilera Andoainen bultzatzea du helburua, eta horretarako da eraginkorra euskarara modu akademikoan hurbiltzeko asmorik ez izanda ere euskara praktikatu nahi baina horretarako aukera gutxi dituztenei euskaraz gozatzeko aukera eskaintzea.

2.- ZERBITZU EMAILEEN EZAUGARRIAK

Zerbitzu emaileak arduratuko dira bidelagun eta bidelariez osatutako taldetxoak antolatzeaz, talde horietako dinamika bizia izan dadin laguntza eta aholkuak emateaz, bidelarien gogokoak diren ekintza osagarriak antolatzeaz, bidelagun eta bidelari berriak aurkitzeaz, eta abar. Horretarako, gainera, egoki irizten den eta beharrezkotzat jotzen den neurrian, euskarri telematikoak ere erabiliko dituzte. Hortaz, zerbitzua zuzenean emateaz arduratzen den/diren pertsonak trebeak izango dira antolaketa eta talde dinamizazio lanetan. Pertsona honek/hauek, halaber, Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko bateratuko C1 mailako euskara-gaitasuna izango du/dute, eta gaitasun hori legeriaren arabera onarturiko egiaztapen-agiri bidez egiaztatuko da.

Halaber, ekimen honen komunikazio egoki eta eraginkorra diseinatu eta bitarteko egokiez baliatuz aurrera eramateko gaitasuna izan beharko du enpresa zerbitzu emaileak.

3.- EGINKIZUNAK.

Bidelagunak eta bidelarik izango dira *Andoaingo Mintzalaguna 2022* ekimeneko parte hartzaileak. **Bidelariak** dira euskaraz ulertu bai eta zertxobait hitz egiteko gaitasuna edukita, beren gaitasun-mailagatik edo erabilera-gune eskasiagatik euskara erabiltzeko zailtasunak dituztenez, euskaraz hitz egiteko aukera bila Mintzalagun egitasmora datozen herritarrak. Beraiek dira Mintzalaguna proiektuko bezero eta protagonista nagusiak. **Bidelagunak** dira, euskaraz normaltasunez hitz egiteko gai izanik, Mintzalaguneko taldeetako solasaldiak euskaraz egiteko bidelariei laguntza eta babesa ematen dietenak. Boluntarioak dira bidelagunak, eta bidelariei doan ematen zaien zerbitzua da Mintzalagunarena.

Zerbitzu emailearen egitekoak honakoak dira:

- Mintzalaguna zerbitzura jendeak izena emateko deialdia egitea eta izen-ematearen kudeaketa egitea.
- Bidelagunak bilatzea.
- Mintzalagun taldeak definitzea eta egituratzea.
- Mintzalagun barnean *Gurasolagun* eskaintza espezifikoa sortzea.
- Herriko euskaltegiarekin eta beste hainbat elkarterekin koordinatzea egitasmoak.

ESKU1801069f-8b01-4e98-8bf4-228ecc1bd15c

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • Faxa: 943 30 08 28 • andoain@andoain.eus

- Erabilera jarduerak eta lantegiak antolatzea.
- Ikasturte hasierako eta bukaerako jarduerak antolatzea.
- Udaleko Euskara Zerbitzuarekin koordinazio zuzena adosten den maiztasunez.
- Udaleko Euskara Zerbitzuaren esku jartzen diren datu guztiek sexuaren arabera antolatuak izan beharko dute.
- Ekimenaren garapenean, edota momentu zehatz batzuetan, emakumeek transmisioan izan duten eta duten garrantzia azpimarratzea eta ikustaraztea.
- Kontziliazioa bultzatzea, horretarako ordutegiak generoaren arabera aztertzea eta zailtasunak identifikatzea.
- Egitasmoari buruzko balorazio-txostena eta ekintza osagarriei dagozkien gastuen zurigarriak eta fakturak azaroan aurkeztea.

Zerbitzu emaileak Andoaingo Udalarekin elkarlanean egingo du Mintzalagunaren jarraipena, eta betiere Udaleko Euskara Sailarekin koordinatuta eta hark emandako irizpideak errespetatuz beteko du bere lana, bai komunikazioan, bai irudi grafikoan eta Mintzalagunaren garapena baldintzatzen duten oinarri nagusietan. *Andoaingo Mintzalaguna 2022*ren komunikazioan, edozein delarik erabilitako euskarria, Andoaingo Udalaren eta zerbitzu emailearen logoak jarriko dira, eta baita ere, orokorrean eta euskarriaren arabera ahal den guztietan, Udalak euskara arloan erabiltzen duen *andoaINDARRA euskaraz* logoa.

4. EGUTEGIA

Mintzalaguneko saioak 2022ko urtarriletik abendura artekoak izango dira, eta uda garaian, uztail eta abuztuan, etena egingo da. Irailean berriro taldeak osatzeari ekingo zaio, eta irail-urrian emango zaio hasiera urteko bigarren txandari.

5.- PREZIOA

Egitasmoaren antolaketa, dinamizazio eta koordinazio lanetarako destinaturiko gehienezko diru-kopurua 9.550 eurokoa da, era honetan banatuta: 7.250 euro *Mintzalaguna* egitasmoari zuzendua, eta gainontzeko 2.300 euro *Gurasolagun* eskaintza espezifikoari. Zerbitzu emaileak eta Andoaingo Udalak erabakiko balute *Gurasolagun* programa aurrera eramateko baldintza objektiborik ez dela betetzen, egitasmo horri dagokion aurrekontua ez da fakturatuko.

Ordainketa, proportzionalki banatuta bi hilabetero egingo da, lehen ordainketa 2022ko otsailekoa izanez. Faktura guztietan bereiziko dira bi kontzeptuak, hau da, *Mintzalaguna* eta *Gurasolaguna*. Ordainketa egin ahal izateko, dagokion faktura aurkeztuko du enpresa zerbitzu emaileak.

Ekintza osagarrietarako eta komunikazio lanetarako esleitutako diru kopuruaren kargura egindako gastuak aparte fakturatuko dira, eta dagozkien zurigarriekin batera aurkeztu beharko dira onartuak izan daitezen. Gastu horiek, egin ahala, hiru hilabetez behin aurkeztu ahal izango dira, eta, nolanahi ere, 2022ko azaroaren amaierarako guztiak aurkeztuko dira.

Eginbidea: Nik, idazkariak, egiten dudana aditzera emateko Baldintza Administratibo Berezien agiri hau **Tokiko Gobernu Batzarrak** onartu duela, Alkatetzak eskuordeturik, **2021/12/03an** egindako bilkuran hartutako erabaki bidez.

Idazkaria

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • Faxa: 943 30 08 28 • andoain@andoain.eus

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU1801069f-8b01-4e98-8bf4-228ecc1bd15c**
Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan: ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=00910***
Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=00910***